



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko uztailaren 11

51 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Saiek egin omen dituzten kalteak direla-eta bideratu diren erreklamazioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Mendillorriko haurtzaindegi publikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Toreatzeko zezenen haragiaren kontsumoaren gainean Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1996an zehar izan duen botika gastuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Kuban prestatu den meningitisaren aurkako txertoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Osasunbideak klinika-laguntzaileak kontratatzeke oposizioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Abererak haragiaren kontsumoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Anbulantzia zerbitzuaren emateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 46 urte baino gutxiago dituzten langabetuendako prestakuntza planei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Errioxako Gobernuak Foru Komunitatearen zerga-ekimenen aurka egin dituen jarduketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Tafallako osasun zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jarduerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Izendapena (20. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen arteko hautaprobak egitekoa, administrari gisa prestatu eta gara daitezen. Gainditu dutenen zerrenda (20. or.).

F Saila:
GALDERAK

Saiek egin omen dituzten kalteak direla-eta bideratu diren erreklamazioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak saiek egin omen dituzten kalteak direla-eta bideratu diren erreklamazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

ERANTZUNA

Saiek egin omen dituzten kalteak direla-eta bideratu diren erreklamazioei buruz Martín Landa

Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko foru parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

1- Erreklamaziorik egiten jarraitu ote duten saiek bizidun aziendari egindako balizko erasoengatik. Hala bada, zenbat eta zeintzuk onartu eta ordaindu diren gaur egunera arte. (Zerrenda, izen eta guzti, erreklamazioaren eta ordainketarako baimenaren eguna ere).

Saien inguruko problemei buruzko nire parlamentu-agerraldiaz geroztik, kalte-ordainketa eskakizunak honakoak izan dira:

Data	Eskatzailea	Herria	Azienda
97-02-07	José M. González Ruiz de Zuazo jauna	Zuñiga	Behi bat eta txekor bat
97-03-03	Agustín Beloqui Percas jauna	Itsaso	Ardi bat eta bi arkume
97-03-11	Juan Martín Alemán jauna	Amaiur	Behi bat
97-03-14	Teodosio Carrica jauna	Eihaurrieta	Ardi bat
97-03-17	Manuel Cañamares Aldareguía jauna	Aroztegi	Ardi bat eta bi arkume
97-03-26			Ardi bat
97-03-19	Alberto Zubieta Betelu jauna	Uharte-Arakil	Ardi bat
97-04-01	Consuelo Azpiroz andrea	Ziaurritz/Odieta	Moxal jaiio berri bat
97-04-10	Guillermo Lasa jauna	Goñi	Behi bat

Oraindik irekita dauden espedienteak dira, eta hauetan lan egiten eta dokumentazioa biltzen dihardute, kalte-ordainketa, egitekotan, egin aurretik.

2- Gaur arte ezagutzen diren azterketa zientifikoetatik inola ere ez da ateratzen saiek bizidunei inongo erasorik egin ahal izana, eta, jakina, zentzugabekeriatzat jotzen dute Nafarroan kontuan hartzen ari diren posibilitatea, alegia, saiek egin

izana oraintsu salatu eta ordaindu diren kalteak. Antzeko gertaeretan oinarritzen diren erreklamazioei jaramon egiten jarraitzeko asmorik al dago?

Orain arte, pertsonal teknikoak buruturiko azterketa eta ikerketek ez dute eskaini saien elikadura-ohitura eta balizko portaera anomaloei buruzko behin betiko ondorioak. Baina saiek aziendarekiko duten portaera aztertzen eta horri buruzko ikerketetan aurrera egiten segitzen dela

ere, aurkezturiko erreklamazioak ahalik eta zorroztasun haundienarekin aztertzen dira, kasu bakoitzetik informaziorik gehiena lortzen ahaleginduz.

Erreklamazioei jaramon egitea ala ez, salatutako gertaera bakoitzaren kausa eta ondorioei buruz lortzen den ziurtasun mailaren baitan egongo da.

3- Behin betiko azterlanak bukatu eta horien ondorioak bat baldin badatoz saien portaerari buruz gaur egunera arte dakigunarekin, hau da, bizidunei erasotzen ez dietela, aurreikusita al dago klausularen bat kontzeptu horretan ordaindutako kalteordainak itzultzeko, azterlanen ondo-

ria aipatu duguna balitz, ordainketa guztiz bidegabekoa bailitzateke?

Problematika honetako gorabeheri buruzko azterlan eta ebaluaketak amaitu artean, ezin daiteke baieza ordainduriko kalteordain guztiak edo batzuk bidegabekoak izan direnik. Hau dela eta, une honetan ez da aurreikusten ordainduriko kopuruak itzultzeko eskatzea.

Hau guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez jakinarazten dizut.

Iruñea, 1997ko apirilaren 16a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Europako Batasunak kutsaduraren alorrean onartu duen jarraibidea Nafarroan aplikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkar-gunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, Kutsaduraren Kontrolerako eta Prebentziorako Jarraibideari buruz egindako galdera dela-eta, honako hau adierazten du:

1. Hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen garbi baten bidez ingurugiroaren babes egokia bateragarriak egiteko Europako Batasuneko jarraibide hau betetzeko zenbait neurri hartuko al ditu Nafarroako Gobernuak?

2. Jarraibide honen ezarpena lau jarduerarlotan egin daiteke: produktuak, prozesuak, industri sektoreak eta geografi eremuak. Hauetako batean edo denetan neurri zehatzak hartzea pentsatu al du Nafarroako Gobernuak?

IPPC jarraibidea, kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari buruzkoa, argi espezifikaturiko ekoizpen gaitasuna duten zenbait industri jardueratan ezar daiteke, baina orain Batzordeko organo eskudunetan enpresa txiki eta ertainetara zabaltea eztabaidatzen ari dira.

Agintari eskudunen betebeharren oinarritzko xedea neurriak hartzea da instalazioen ustiapena honako hau lortuz egin dadin:

a) Kutsaduraren prebentziorako neurri egokiak hartzea, bereziki erabil daitezkeen teknika onenak ezarriz.

b) Garrantzizko kutsadurarik ez izatea.

c) Hondakinei buruzko 1975eko uztailaren 15eko 75/442/CEE Kontseiluaren Jarraibidearen arabera, hondakin ekoizpena saihestea; hori ezinezkoa balitz, birziklatu eginen dira, eta hori tekniki nahiz ekonomikoki ezinezkoa balitz, deuseztu egingo dira, ingurugiroan duten eragina saihestuz edo gutxituz.

d) Energia modu eraginkorrean erabiltzea.

e) Istripu larriak prebenitzea eta hauen ondorioak mugatzea.

f) Instalazioaren ustiapena bukatzean, kutsadura arriskuak ekiditeko eta tokia egoera onean gera dadin beharrezko neurriak hartzea.

Jarraibidearen funtsezko unea baimena emateko baldintzak ezartzearena izanen da, ikuspegi integratu eta eraginkor batez aurreko printzipio orokorrak kontutan hartuz.

Honek ingurugiroaren arloan Estatuaren oinarriko legedia berriz aztertzea behartzen du eta 1999ko urriaren 31 baino lehenago egin behar da, momentu hartatik instalazio berriei ezarri ahal izanen zaielarik, eta 2007ko urriaren 31 baino lehen aurretik zeuden instalazioetarako.

Oinarrizko legedia denez, Nafarroako Foru Komunitatean egin nahi den edozein aldaketa honi jarraikiz egin beharko da.

Aipatutako epean Nafarroako Gobernuak ingurugiroa babesteko jarduera sailkatuei buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen aldaketa egokia egiteari ekingo dio, aurreko printzipioak kontutan hartuz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 17an

Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria. Yolanda Barcina Angulo

Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Barañaingo tentsio altuko lerroa kentzeari buruz Pedro Uriz Lanz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko foru parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

1- Nafarroako Gobernuak ba al du egutegi jakin bat Barañain zeharkatzen duen tentsio altuko lerroa kentzeko? Baiezkoan esan bedi zein den.

Iparraldeko Hiribidetik Barañain zeharkatzen duen tentsio altuko lerroa kentzeko beharrezkoak diren ekintzak, 220 KVko Cordovilla-Orkoiaren I eta

II lerroak zirkuitu bikoitzeko bihurtu daitezkeen sustatuz, aurtengo lehen seihilabetekoan hasteko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Lanak 1999ko lehen seihilabetekoan bukatuta eduki ahal izatea espero da.

2- Ba al da kentzeko proiektua aurrera eramateko aurrekontu-kontusailik? Baiezkoan, zenbatekoa? Nahikoa al da lerroa erabat kentzeko?

Nafarroako Gobernuaren ekitaldi honetarako Aurrekontu Orokorretan badago Orkoiaren-Cordovilla lerroaren kentzea (11170-9 lerroa) deituriko kontusail bat, zeinari 75 milioi pezeta baitagozkion. Programaturiko aldaketak 240 milioi inguruko kostu estimatua daukanez gero, geratzen den kopurua urte anitzeko gastu gisa programatuko da.

3- Ba al du Gobernuak proiektua finantzatzeko Europako fondorik eskatzeko asmorik?

Egun, asmotan dagoen ekintza bere barne har dezakeen Europako Batasuneko finantza-programarik ez da existitzen.

Hau guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez jakinarazten dizut.

Iruñea, 1997ko apirilaren 18a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Mendillorriko hartzaindegi publikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Mendillorriko hartzaindegi publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak, Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren arabera, eta Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Mendillorri aurreikusirik dagoen Hartzaindegiari buruz egindako galdera dela-eta, honako hau adierazten du:

1. Mendillorriko Hartzaindegi publikoaren eraikuntzaren egungo egoera.

Auzokoek Mendillorriko Hartzaindegi publikoaren tokia aldatzeko eskaera egin ondoren, momentu honetan orube berriaren Xehetasun Azterketa izapidatzen ari da Eguesibarreko Udalean. Honekin batera lehengo proiektuaren birmoldaketa eskatu da. Hau oinarritzko proiektu bezala dago orubearen konfigurazioa ziurtasunez mugatuko duen Xehetasun Azterketaren onespina izan arte.

2. Noiz jarriko da martxan Mendillorriko Hartzaindegi publikoa?

Eraikuntza 97-98 ikasturterako aurreikusita dago. Funtzionamendua kudeatu beharko duen Udalaren menpe egongo da, Udal Hartzaindegia izango baita.

3. Zenbat plaza izanen dituen eta erabaki honen arrazoiak.

Zentro honek ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuan (ekainaren 26ko Estatuaren Aldizkari Ofiziala) ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu, eta honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako plaza hauek izango ditu:

1 Bularreko haurrentzako Unitate bat	8 haur
2 unitate, ibiltzen diren 1-2 urteko haurrentzako (13 bakoitzean)	26 haur
2 unitate 2-3 urteko haurrentzako (20 bakoitzean)	40 haur
	<u>74 haur</u>

4. Euskarazko eta gaztelerazko Hartzaindegia izanen da? Hizkuntza aukera bakoitzean aurreikusitako plazak.

Esan den bezala, Nafarroako Gobernuak Hartzaindegia eraikitze eta hornitzeko konpromezua hartu du ondoren Udal Administrazio eskudunari emateko, kudeaketa nolakoa izango den azken honek erabakiko duen.

5. Izanen dituen langileak: Kopurua eta trebakuntza lanean nahiz hizkuntzetan.

Aurreko zenbakiko erantzunari lotzen gatazka.

Behar diren ondorioak izan ditzan hau guztia jakinarazten dizut.

Iruñean, 1997ko apirilaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Toreatzeko zezenen haragiaren kontsumoaren gainen Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Toreatzeko zezenen haragiaren kontsumoaren gainen Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak zezenketako zezenen haragiaren kontsumoari buruz egindako galdera dela-eta, honako hau adierazten du:

1. Noiz bildu zen aipatu den Herrialdearteko Kontseilua? Gure Komunitateko Administrazioaren ordezkariak izan al zen bileran? Zenbat? Zeren aldetik edo nor ordezkatu ziren?

Herrialdearteko Osasun Kontseiluko Elikadura arloko-Osasunaren Koordinazio eta Laguntza Batzordearen bilera, Batzorde tekniko gehienbat, Madrilen egin zen joan den otsailaren 25ean, bertan, gure Komunitatearen izenean Julio Fernández de Manzanos, albaitaria eta Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko Elikadura arloko Ataleko burua izan zelarik.

2. Nafarroako Gobernuak ba al du edo prestatzen ari da zezenketako zezenen haragia merkaturatzeko aintzakotzat hartu behar diren baldintzei buruzko azterketa edo txostenik?. Azterketa hauek, gomendio gisa, zer ondorio ateratzen dira?

Zezenketako zezenen haragia merkaturatzeko aintzakotzat hartu behar diren baldintzei buruzko azterketarik ez da egiten ari. Hala ere, azpimarratu behar da Nafarroako Gobernuaren parlamentariaren galderaren gaia den Batzordearen zirriborroan ikusten diren proposamen gehienak gauzatzen ari dela dagoeneko.

Beraz, zezen-ikuskizun guztietan Osasun Publikoko albaitari batek kanalak kontsumorako aproposak diren ala ez irizpena ematen duen haragitze prozesua gainbegiratzen du. Kanalak

dagokien ziguaz identifikatzen dira eta honekin batera akta bat egiten da nora doan, garraibidea, kopurua, identifikazioa eta pisua zehaztuz. Faxaren bidez, Albaitaritza Zerbitzu Ofizialei kanalen harrera jakinarazten zaie ondorengo azterketarako. Honez gain, zezen-ikuskizun guztietan lagin bat hartzen da hondarren azterketa egiteko.

3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako proposamenari buruzko iritzirik azaldu al zuen Nafarroako Gobernuak? Zein izan zen? Erantzuna ezezkoa bada, zein da Nafarroako Gobernuak zezenketako zezen haragiari buruz duen iritzia?

Extremadura, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Madril eta Andaluzia Komunitateek ezagutzera emateko eta ondoren aztertzeko aurkeztu zuten zirriborroari Osakidetzak zezen haragiaren kontsumoa debekatzeko aurkeztu zuen proposamena erantsi zitzaion. Azterketa sakonagorik ez dagoen bitartean, Nafarroako Gobernuaren irizpidea zezen haragia kontsumorako egokitzat jotzea da, behar izanez gero kontsumo honen osasunbermak hobetuko dituzten neurriak hartuz.

4. Nafarroako nahiz Estatuko zer legeria ezar daiteke zezen-plazetan hildako abereen merkaturatzeari buruz?

Gaur egun indarrean dagoen legeria, gaurkotzeari dagokionez hobe daitekeena, Espainiako Elikadura Kodearena da.

5. Nafarroako Gobernuak zer administrazio unitateri dagokio haragi mota horren jaterainoko jardunbide osoa jarraitu eta kontrolatzea?

Aipatutako haragi motaren jaterainoko jardunbide osoa jarraitu eta kontrolatzea dagokion Nafarroako Gobernuaren Administrazio Unitatea Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuko Elikadura arloko Osasunaren Atala da.

6. Zezenketako zezenkia jateagatik aferarik izan al da? Esan bedi noiz eta egin bedi haien laburpen bat.

Ez da zezenketako zezenkia jateagatik aferarik antzeman. Nafarroan urtero jaten den haragi kopurua 75.000 kilokoa da gutxi gora behera.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1996an zehar izan duen botika gastuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1996an zehar izan duen botika gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 1996ko farmazi-gastuari buruz Alberto Catalán Higuera jauna, Unión del Pueblo Navarro (UPN) Parlamentari Taldeko bozeramaileak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, Osasun Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

1. Osasunbideak, ospitaleetan eta ospitaleetatik kanpo, 1996an izaniko farmazi-gastua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 1996ko ospitaleetatik kanpoko farmazi-gastua 10.394,6 milioi pezetakoa izan da; horietatik 10.224,6 milioi Botikei ordaindurikoari dagozkio, eta 170 milioi Difnarsa-Unicefar enpresari, gerneruetsiezintasun kasuetarako xurgagarrien banaketa dela eta.

Ospitaleetako farmazi-gastua 1.796 milioikoa izan zen; beraz, arlo honetako zenbateko guztia, 1996an, 12.190 milioi pezetakoa izan zen.

2. Ospitale, osasun-etxe, lehen medikuntzako osasun-barruti oinarrizko bakoitzak eta Nafarroan osasun-laguntza ematen duten bestelako osasun-zentru publikoek 1996an izaniko fakturazioa. Halaber, osasun-barruti oinarrizkoen kasuan, esan bitez haiek osatzen dituzten farmazi-bulegetariko bakoitzaren urteroko fakturazioa, haien titularra nor den eta zer herritan dauden.

1. Taulak Farmazi-Prestazioaren zenbatekoa (Publikoarentzako Salmenta-Prezioan emana) zehazten du, oinarrizko osasun-barrutika sailkatuz.

1. Taula: Farmazi-prestazioa
oinarrizko osasun laguntzan 1996

Oinarrizko Barrutia	Guztira
Altsasu	210.087.237

Etxarri Aranatz	126.773.072
Irurtzun	135.897.939
Leitza	61.527.525
Lesaka	124.418.682
Elizondo	166.059.232
Doneztebe	111.868.345
Ultzama	55.398.877
Auritz	63.469.790
Agoitz	65.545.440
Uharte	89.707.484
Atarrabia	162.648.512
Burlata	297.762.905
Berriozar	123.631.532
Orkoien	67.702.328
Sanduzelai	164.218.441
Errotxapea	465.142.402
Txantrea	478.703.323
Alde Zaharra	252.932.589
II. Zabalgunea	534.669.049
Milagrosa	285.677.292
Iturrama	263.603.069
Donibane	576.597.645
Ermitagaña	184.529.002
Zizur-Etxabakoitz	174.233.532
Barañain	226.074.538
Gares	125.490.996
Noain	180.107.373
Zangoza	238.265.453
Zaraitzu	39.457.476
Izaba	32.118.078
Lizarra	266.109.317
Villatuerta	96.467.772
Allo	140.775.730
Antzin-Amezkoa	97.253.350
Urantzia	74.221.958
Viana	74.595.226
Lodosa	256.924.083
San Adrián	298.040.639
Tafalla	218.400.368
Artaxona	117.526.293
Zarrakaztelu	127.268.971
Erriberri	191.748.869
Azkoién	263.958.781

Mendebaldeko Tuteria	195.688.968
Ekialdeko Tuteria	419.333.966
Valtierra	266.784.951
Corella	201.596.751
Cintruénigo	201.544.901
Cascante.....	244.564.822
Buñuel.....	306.097.185
Mendillorri	102.549.763
Azpilagaña	209.868.874

Jarraian, osasun-zentru publiko bakoitzaren 1996ko gastua zehazten da:

Zentroa	Zenbatekoa milioitan
Nafarroako Ospitalea	781
Bideko Ama Birjina Ospitalea	617
Ubarmin Klinika	30
Anbulategiak	4
Tuterako Ospitalea	154
Lizarrako Ospitalea	81
Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna	129
Guztira	1.796

3. Zenbat errezeta eman diren 1996an. Zenbat diren araubide orokorrekoak eta zenbat pentsiodunenak.

Jardunekoaren errezeta-kopurua (araubide orokorra):2.365.618

Dohainikako farmazia duen taldearen errezeta-kopurua (pentsiodunak eta beste batzuk):4.657.927

Errezeta-kopuru osoa:7.023.545

4. Zein den batezbesteko farmazi-gastua eta nafarrek 1996an izaniko errezeten batezbesteko kopurua. Kasu horietan, esan bitez Araubide Orokorraren menpe dauden hiritarrei dagokiena eta pentsiodunei dagokiena.

Gastua biztanleko:	19.688 pezeta
Gastua jardunekoko:	6.463 pezeta
Gastua pentsioduneko:	57.724 pezeta
Errezeta-kopurua biztanleko:	13,53
Errezeta-kopurua jardunekoko:	6,13
Errezeta-kopurua pentsioduneko:	34,8

5- Zer deritzen Osasun-Departamentuak farmazi-gastu horiei.

Farmazi-gastuaren balorazioa beste Osasun Zerbitzuetakoarekin alderatuz egin daiteke. 3.

Taulak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta beste Osasun Zerbitzuetako adierazle kuantitatiboak azaltzen ditu. Nafarroak Estatuak baino biztanleko gastu txikiagoa du. 96/95 gehikuntza ere txikiagoa izan da Nafarroan Estatuan baino.

6. Farmazi-gastua kontrolatu eta antolatzen behinola harturiko neurrien balorazio eta bilakaera. Daturik esanguratsuenen bilakaera, aurreko urteen aldean.

Azken urteetan farmazi-gastua geldiarazteko asmoz harturiko neurriak honakoak izan dira:

1.- Sendagaiei aplikatu beharreko BEZ-tipoa %6tik %3ra jaitsi, 1993ko urtarriletik aurrerako ondorioekin (gaur egun sendagaien BEZa %4koa da).

2.- Sendagai hautatuen finantzaketarako Dekretua, 1993ko uztailetik aurrerako ondorioekin.

3.- Prezio-murrizketarako akordioak Farmaindustria-rekin, 1994ko otsailetik aurrerako ondorioekin.

4.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta farmazi-bulegoen arteko kontzertua, fakturazioaren % 2ko beherapena ezartzen duena.

5.- Gernu-etsiezintasunerako xurgagarrien lehiaketa, gernu-etsiezintasunerako xurgagarrien kostua %18an jaitsi duena, 1996ko uztailetik aurrerako ondorioekin.

6.- Farmaindustriarekin akordioa, zeinaren bidez %7ko hazkuntza gainditzen duten salmentei dagokien margen gordinaren %100a itzuliko baitio industriak Administrazioari. Farmazi-espezialitateen salmenten balioa laborategiaren salmenta-prezioaren arabera kalkulatu, balio honen %56,73an ezartzen da margen gordina.

Gastuaren gehikuntza moteltzen argien lagundu duten neurriak ondokoak izan dira:

– Farmazi-bulegoen beherapena, azken urte honetan 208 milioiko aurrezpena ekarri duena.

– %7ko hazkuntza gainditzen duten salmentei dagokien margen gordinaren itzulketari buruzko akordioa Farmaindustria-rekin. 1995. urteari dagokion itzulketa 129,8 milioi pezetakoa da.

– Gernu-etsiezintasunerako xurgagarrien lehiaketa 1996ko uztailan hasi zen. 1996ko bigarren seihilabetekoan xurgagarrietan egindako gastua 170 milioikoa izan da. Lehenengo seihilabetekoan (alegia, banaketa farmazi-bulegoen bitartez egiten zenean) egindako gastua 190,5 milioi pezetakoa izan zen. Beraz, xurgagarri-lehiaketa-

ren eragina urteko 41 milioi pezetatan neur daiteke.

Gainontzeko neurrien eragina zaila da balioztatzen:

– Finantzaketa hautazaleari buruzko dekretuak murriztu egin zuen emandako errezeten kopurua, nahiz eta haren eragina koantifikatu ahal ez izan.

– Sendagaien BEZaren murrizketak arindu egin zuen farmazi-gastua, baina Ogasun publikoarentzat izan zuen efektua neutroa izan zen praktikan.

– Farmaindustriarekin itundutako 1994ko prezio-jaitsieraren eraginkortasuna sendagai berri garestia goen komertzializazioak deuseztu zuen.

7- Nafarroako farmazi-gastuak hurrengo hila-bete eta urteetan izango duen joerari buruzko aurreikuspenak.

Osasun Departamentuak zera aurreikusi du: Farmazi Prestazioan eginiko gastuak 1996an eginiko gastuaren %7ko gehikuntza pairatzea. Gastuaren gehikuntza azken urteetan kopuru hori baino haundiagoa bada ere, sendagaien publikoarentzako salmenta-prezioa %3,8an jaitsiko duen margenei buruzko dekretua 1997ko martxoan eraginkor bihurtuko dela eduki behar da kontuan.

Hau guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritikoa betez jakinarazten dizut.

Iruñea, 1997ko apirilaren 21a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

3. Taula: Farmazi prestazioa

Gastua			
	1996	1995	96/95%
Andaluzia	150.197.281.461	136.612.137.612	9,94
Kanariak	29.686.853.265	26.234.991.056	13,16
Katalunia	134.086.354.511	118.243.236.162	13,40
Galizia	55.420.726.105	49.557.182.561	11,83
Nafarroa	10.223.590.435	9.298.471.900	9,95
E.A.E.	38.990.481.550	33.590.325.931	16,08
Valentzia	97.179.082.475	87.522.630.313	11,03
Insalud	284.999.520.292	256.465.317.516	11,13
Estatua, guztira	800.783.890.094	717.524.293.051	11,60

Errezetak			
	1996	1995	96/95%
Andaluzia	107.951.207	103.736.273	4,06
Kanariak	20.921.437	19.789.740	5,72
Katalunia	89.165.975	84.484.933	5,54
Galizia	36.470.203	34.657.177	5,23
Nafarroa	7.023.541	6.692.576	4,95
E.A.E.	24.548.610	23.267.887	5,50
Valentzia	68.014.143	64.333.883	5,72
Insalud	197.505.069	188.065.310	5,02
Estatua, guztira	551.600.185	525.027.779	5,06

Errezetako batez besteko prezioa			
	1996	1995	96/95%
Andaluzia	1.391	1.317	5,65
Kanariak	1.419	1.326	7,04
Katalunia	1.504	1.400	7,45
Galizia	1.520	1.430	6,27
Nafarroa	1.456	1.389	4,77
E.A.E.	1.588	1.444	10,02
Valentzia	1.429	1.360	5,03
Insalud	1.443	1.364	5,81
Estatua, guztira	1.452	1.367	6,23

Adierazleak			
	Gastua/biztanleko	Errez./biztanleko	Gastua/Erre.
Andaluzia	21.641	15,55	1.391
Kanariak	19.874	14,01	1.419
Katalunia	22.128	14,72	1.504
Galizia	20.288	13,35	1.520
Nafarroa	19.688	13,53	1.456
E.A.E.	18.531	11,67	1.588
Valentzia	25.194	17,63	1.429
Insalud	18.792	13,02	1.443
Estatua, guztira	20.600	14,19	1.452

4. Taulak azken 10 urte hauetako farmazi-gastua agertzen du

Urtea	Gastua		Errezetak		Gastua/Errezeta	
		Gehikun.		Gehikun.		Gehikun.
1986	2.870.754.412		5.601.900		512	
1987	3.452.643.124	20,3	5.669.400	1,2	609	18,8
1988	4.051.234.448	17,3	5.909.500	4,2	686	12,6
1989	4.628.404.888	14,2	5.998.600	1,5	772	12,5
1990	5.308.164.558	14,7	6.242.300	4,1	850	10,2
1991	6.245.925.029	17,7	6.345.300	1,7	934	15,8
1992	7.182.434.692	15,0	6.369.493	0,4	1.128	14,6
1993	7.877.723.907	9,7	6.367.484	0,0	1.237	9,7
1994	8.288.802.433	5,2	6.295.028	-1,1	1.317	6,4
1995	9.298.471.900	12,2	6.692.618	6,3	1.389	5,5
1996	10.223.590.433	9,9	7.023.545	4,9	1.456	4,8

Kuban prestatu den meningitisaren aurkako txertoari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Kuban prestatu den meningitisaren aurkako txertoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak Ion Iñaki Erro Armendariz Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak Kuban prestatu den meningitisaren aurkako txertoari buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau jakinarazten dizu:

1. Badaki Osasun Departamentuak Kuban meningitisaren aurka txerto bat prestatu dutela? Zer deritzo horri?

Osasun Departamentuak, jakina, ongi daki aipatutako txertoa dagoela.

Balorazioari dagokionez, sendagai baten balorazioa ez luke Osasun Departamentuak egin behar, nazioarteko komunitate zientifikoak baizik.

Azken balorazio hau, nazioarteko komunitate zientifikoarena alegia, da Osasun Departamentuak momentu honetan Biltzarrari adierazi nahi diona.

Kuban prestatutako txertoaren ekarpen berria B serotipoak sortutako gaisotasuna prebenitzeko aukera da. Nazioarteko bibliografiak aipatutako txertoarekin B seromultzoaren aurreko eraginkortasuna neurtzeko probak egin diren hiru ikerketa baino ez ditu aipatzen, eta ondorioak ondoko hauek dira:

Urtea	Tokia	Populazio mota	Eraginkortasuna	K.T.*	Erref.
1987-89	Kuba	10-14 urteko ikasleak	%83		1
1989-90	Sao Paulo	24 hilabetez beherako neska-mutilak	Ez da eraginkorra		
		24-47 hilabetez neska-mutilak	%47		
		47 hilabetez 6urtera bitarteko neska mutilak	%74	%16-92	2
1990-91	Río de Janeiro	6 hilabetez 9 urtera bitarteko neska-mutikoak	%58		
		lau urtezik gorako neska-mutilak	%71	%34-87	3

* Konfiantza tartea.

1. Erreferentzia: Sierra VG, Campa HC, Valcárcel NM et al. Vaccine against group B Neisseria meningitidis protection and mass vaccination results in Cuba. NIPH Ann 1991; 14; 195-210

2. Erreferentzia: Morães JC, Perkins BA, Camargo MCC et al. Protective efficacy of serogroup B meningococcal vaccine in Sao Paulo. Brazil Lancet 1992; 340; 1074-78.

3. Erreferentzia: Noronha CP, Struchiner CJ, Halloran ME. Assessment of the direct effectiveness of BC meningococcal vaccine in Rio de Janeiro, Brazil: a case control study. Int J. Epidemiol 1995; 24(5); 1050-1057.

Ikerketa hauetatik ondorioztatzen denez, esan genezake B serotipoaren aurkako txertoaren eraginkortasuna txikia eta eskasa dela edo lau urtezik beherako umeengan eraginkortasunik ez duela.

2. Ba du asmorik Nafarroako Gobernuak Kuban B eta C meningitis moten aurka prestatutako txerto horren erosketa bultzatzeko, Foru Komunitatean erabil dadin?

Beste batzuek txertoa eros dezatela bultzatzeko Espainian txertoak salgai egon beharko luke behintzat, eta momentu honetan ez dago erregistraturik eta ezta merkatuan ere.

Galderaren xedea Nafarroako Gobernuak txertoa atzerriko sendagaien bidez erosteko asmorik duen ala ez jakitea bada, erantzuna ezezkoa da ondoko arrazoiengatik:

1. Atzerriko sendagai bat erosi ahal izateko beharrezkoa da Espainian ezaugarri berberak dituen beste sendagairik komertzializaturik ez ego-

tea eta beharra arrazoitzea. A eta C serotipoen aurkako txertoa Espainiako merkatuan egonda, B serotipoaren aurrean eskaintzen duen babesarengatik hitz egin liteke Kuban prestatutako txertoa erostearen alde.

Aurtengo otsailaren 27ko parlamentari agerraldian azaldu nuenez, Nafarroan hogeitaz beherako artean (populazio talde honi zuzen baimen txertaketa kanpaina bat) sortzen diren B serotipoko meningitis kasuen %95 lau urte baino gutxiagoko haurrengan sortzen dira hain zuzen. Aurreko erantzuna ikusirik, lau urtezik beherako neska-mutikoentzat txertoaren B osagaia eskasa edo baliogabea dela ondoriozta daiteke, eta, beraz, ezin izanen genuke inoiz justifikatu Kuban prestatutako B eta C txertoaren erosketa justifikatu.

2. Nafarroako Gobernuak ez du jende askorentzako txertaketa kanpainarik egitea pentsatu eta egoera honetan ezin du Kuban prestatu duten B eta C serotipoen kontrako txertoaren erosketa bultzatu.

3. Etorkizun hurbilean jende askorentzako txertaketa kanpaina bat egitea pentsatuko balitz, C serotipoa nagusi denez, Espainian merkaturaturiko txertoaz egitea beste aukerarik ez genuke izango.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Osasunbideak klinika-laguntzaileak kontratatzeke oposizioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasunbideak klinika-laguntzaileak kontratatzeke oposizioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak M^a Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak Osasunbideak klinika-laguntzaileak kontratatzeke oposizioei buruz egindako galdera dela-eta, honako hau jakinarazten dizu:

1. 1996ko azaroan argitara eman baldin bazen behin-behineko baremoa, ez al da igaro lanpostuak zehazteko nahitaezko epea?

1996ko azaroaren 27an behin-behineko baremoa argitaratu zen eta Epaimahai kalifikatzaileak hilabeteko epea eman zien izangaiei honen kontrako alegazioak aurkez zitzaten. Epaimahaiak alegazioak aztertu ditu dagoeneko, behin betiko

baremoak martxoaren 12ko datarekin argitaratu zirelarik.

2.-3. Zergatik ez dira probak barematu oraindik? Beste titulaziorik gehituko al da baremazio berria egiteko?

Merezimenduen baremoak 3.1. atalean deialdian eskatutakoaz gain bete nahi den lanpostuarekin harremana duten titulazio ofizialek gehienez lau puntu izango dituztela ezartzen du. Epaimahai da, beraz, bere eskumeneko boterearen barrenean, zein titulazio baloratu behar diren eta zenbat punturekin erabakitzen duena.

Egia da alegazio asko deialdian eskatzen ez ziren Osasun arloko zenbait titulazio baloratuak izan ez zirelako aurkeztu zirela.

4. Zer egun aurreikusi du Gobernuak lanpostuei buruzko erabakia ezagutarazteko?

Osasunbideak Epaimahai kalifikatzaileak izendapen-proposamena apirilean egitea espero du, baina ausartegia litzateke klinika-laguntzaileak lanpostuez jabetuko diren data zehaztea, behin betiko baremoari aurkezten zaizkion alegazioen menpe egongo baita.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 2an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Abere suharren haragiaren kontsumoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Abere suharren haragiaren kontsumoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Bertako zein kanpoko zezenketetatik datorren haragiaren kontrolari buruz M^a Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak egindako galderari ihardetsiz, Osasun Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

1- Nafarroako Gobernuak parte hartu al zuen Osasunaren Herrialdearteko Kontseiluaren bileran?

Osasunaren Herrialdearteko Kontseiluko Elikadura Osasunaren Koordinazio eta Lankidetzaren Batzordean, Batzorde nagusiki teknikoan, hartu zuen parte Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuko Elikadura Osasunaren Ataleko burua den Julio Fernández de Manzanos albaitari jauna bertan izan zelarik.

2- Baiezkoan, zer iritzi adierazi zuen Nafarroako Gobernuak bilkura hartan?

Batzordeari lan-talde batek prestatuturiko txostena aurkeztu zitzaion, honela dioena:

Zezenketa-haragi freskoen aprobetxamendua eta higie- eta osasun-baldintzak.

Detektaturiko problemak zehaztasunez aztertu ondoren (haien artean aipagarria da haragi hauei aplikatzekoa den legedia urri eta zaharkitua gaur egungo egoerara egokiturik ez egotea, egun beste merkataritza-kanal batzuk behar-beharrezkoak baitira, legediak ezartzen dituenak gutxiegi direlako), honako hau proposatzen da:

– Osasun eta Kontsumo Ministerioak oinarrizko araudi berezi baten proiektua presta dezala, aurreko araudia derogatuko duena eta basa-ehizari buruzkoa hartuko duena eredutzat (2.044/94 Errege-Dekretua), besteak beste, jarraian aipatzen diren alderdiak aurreikusiz:

a) Kanalak albaitari batek kontrolatzea zezenplazan.

b) Kanalak banaka identifikatzea helmugara garraiatzerakoan.

Helmugan haragiak albaitari ofizial batek kontrolatzea.

c) Harategi bat edo zatikatze-gela bat izan daitezke helmuga, proposatzen diren bi merkataritzamoten arabera: merkataritza nazionala (zatikatze-gelak) eta merkataritza lokala (harategiak).

d) Haragi hauei Hondakin Ikerketari buruzko Plan Nazionala aplikatzea.

Ezagutarazteko eta ondoren aztertzeko asmoz aurkeztu zen aipatutako txostena, Erkidego Autonomoek hari buruzko proposamenak egin zitzaten (Batzordearen hurrengo bilkuran ekingo zaie hauei).

3- Nafarroako Gobernuak pentsatu al du kontrol neurririk hartzea bertako eta kanpoko zezenketetatik datorren haragia gizakiek jateko baldintzarik onenetan izan dadin?

Nafarroako zezen-ikuskitzunei buruzko Ekainaren 29ko 249/92 Foru Dekretua betez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko eta Osasun Departamentuko albaitariak izendatu ohi dira.

Aipatutako albaitariak egiten dute ante mortem azterketa, eta post mortem azterketa Osasun Publikoko albaitari batek burutzen du, honek oke-latze prozesua eta kanalen kontsumorako egokitasunaz ere bere irizpena ematen duelarik.

Egoki den zigilatzea egiten da kanalak identifikatzeko, eta helmuga, garraibidea, kantitatea, identifikazioa eta pisua zehazten dituen akta bat gehitzen zaie.

Fax bidez, hartzaile diren Albaitari Zerbitzu Ofizialei haragiaren bidalketa jakinarazten zaie, ondoren kontrolatuak izan daitezten.

Zezen-ikuskitzuna guztietan hondakinen kontrolerako lagin bat hartzen da, klenbuterol, lasaigarri, plagizida edo metal astunak dituen ala ez ikertzen delarik. Hartutako laginen emaitza analitikoak erabat normalak izan dira beti.

Hau guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez jakinarazten dizut.

Iruñea, 1997ko apirilaren 21a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Anbulantzia zerbitzuaren emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Anbulantzia zerbitzuaren emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 14ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak M^a Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, 1996ko abenduaren 31n bukatu zen itun baten arabera, Osasunbidea eta Nafarroako Anbulantzien Enpresen Elkarte negoziatzen ari diren larrialdietako eta ohiko zerbitzua emateari buruz egindako galdera dela-eta, honako hau jakinarazten dizu:

1. Noiz egingo da hurrengo lehiaketarako deia?

Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako Eskualdeei dagokien osasun garraioa esleitzeko lehiaketarako deialdia Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Kudeatzailearen mar-

txoaren 25eko 415/97 Ebazpenaren bidez egina dago.

2. Urte beteko epe berari eutsiko al dio hurrengo lehiaketak?

Deitutako lehiaketa abenduaren 31n bukatuko da, 2000. urtera arte urtez urte luza daitekeelarik.

3. Anbulantzien zerbitzua arautzen duen Foru Dekretua eskakizun berberekin ezarri al zaie enpresa guztiei?

Lehiaketa arautzen duten baldintza partikularren orrietan ibilgailu guztiek indarrean dagoen araudia eta bereziki Osasun Garraioa arautzen duen otsailaren 10eko 29/1997 Foru Dekretua, martxoaren 3ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 27. zenbakian argitaratua, bete behar dutela ezartzen da.

4. Nola daude Osasunbidearen eta ambulanzien enpresen arteko negoziaketak?

Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak deitutako lehiaketaren ondorioz kontratazio berria egin arte zerbitzua luzatzeko negoziaketak egin zituen; beraz, bukatu egin dira dagoeneko.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

46 urte baino gutxiago dituzten langabetuendako prestakuntza planei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak 46 urte baino gutxiago dituzten langabetuendako prestakuntza planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko

Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak 46 urte baino gutxiago dituzten langabetuentzako prestakuntza planei buruz egindako galera deta-eta, honako hau jakinarazten dizu:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera gai honetan eta nola gauzatu behar du?

Nafarroako Gobernuak 40 edo 45 urte baino gehiago dituzten langabetuen arazoaren larritasuna ezagutzen du. Arazoa, kopuruarena baino, kualitatiboa da, eta, beraz, uste dugu talde hau lanaren munduan sartzeko orientazioa, prestakuntza edo laneratzea kontutan dituzten neurriak hartu behar direla, eta ez bakarrik, gaur egun egiten den bezala, 45 urte baino gehiago dituzten langabetuen kontratazioak erraztuz edo lagunduz, praktikan neurri hauek ez baitute eraginkortasun handirik erakusten. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak orientazio, prestakuntza eta laneratzeko nahiz nork bere enplegua sortzeko neurriak aztertzen ari da.

Parte hartu al zuen Nafarroako Gobernuak aurrekontuei buruzko eztabaida martxan zegoela egin zen aldaketan?

Parlamentuan enmendakinen eztabaidan Nafarroako Gobernuak parte hartzen du modu zuzenean edo zeharka, enmendakin hauek, aurrera ateratzekotan, ukitzen duten neurrian, bereziki Nafarroako Gobernuari sustengua ematen dion Parlamentari Taldea alde azaltzen denean. Kasu zehatz honetan kontutan hartu zen 45 urte baino gehiago dituzten langabetuentzako laguntza bereziak daudela.

Zein da Nafarroako Gobernuak berrogei urte baino gehiago dituzten langabetuen prestakuntza eta lanean sartzeko beharrez duen iritzia?

Lan merkatuaren joera ongi prestatutako gazteen kontrataziora zuzenduta dagoela kontutan hartuz, bertan, heziketa sistemaren hobekuntza orokorraren ondorioz eskaintza ugari daudelarik, berrogei urte baino gehiago dituzten langabetuek zailtasun bikoitza aurkitzen dute: alde batetik adinari dagokiona eta bestetik aldaketa teknologikoa eta ekoizpen sistemen aldaketak direla-eta beren prestakuntzan dituzten hutsunei dagokiena.

Afera bikoitz baten aurrean gaude: lehenengoa eta garrantzi handiena duena kontratazioaren kultura aldatzea da, adina zerbait diskriminatzailea izan ez dadin. Bigarrenak konponbide errazagoa du, lehenengo erantzunean azaldutakoaren arabera, orientazio, prestakuntza eta laneratzeko sistemak ezarri baitaitezke talde hau lan merkatuaren baldintzetara egoki dadin.

46 urte baino gutxiago dituzten langabetuentzat, zer prestakuntza eta laneratzeko plan gauzatu du Nafarroako Gobernuak.

46 urte baino gutxiago dituzten langabetuentzako kontusailari dagokion prestakuntza eta laneratzeko plana hiru taldetara zuzenduko da:

- 30 urte baino gutxiago dituzten langabetu gazteak.
- 46 urte baino gutxiago dituzten emakumeak
- 30tik 46 urtera bitarteko iraupen luzeko langabetuak.

Plan hauek trebakuntza ikastaroak eta laneratzeko ekintzak tartekatu beharko dituzte.

Iruñean, 1997ko apirilaren 22an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Errioxako Gobernuak Foru Komunitatearen zerga-ekimenen aurka egin dituen jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Errioxako Gobernuak Foru Komunitatearen zerga-ekimenen aurka egin dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentariak Errioxako Gobernuak Europako Batasunaren aurrean Nafarroako araudi fiskalaren aurka aurkeztu duen kexari buruz egindako galdera dela eta, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak honako hau adierazten du:

1. Agintari errioxarrek Errioxak Bruselan duen Ordezkaritzaren egoitzan izandako ekitaldi batean Europako Batasuneko agintariei beren kexa ahoz adierazi zietenean izan zuen Nafarroako Gobernuak gai honen berri. Berrantolatu zenetik egiten ari denez, Nafarroak Europako Batasunean duen Ordezkaritzak erakunde komunitarioetan aztertzen den eta Nafarroari dagokion edozein gai buruzko informazioa ematen die egunero Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpe dagoen Kanpo Ekintzako arduradunei.

2. Orain arte ez dago inolako agiririk, eta, beraz, Europako Batasunaren arauen arabera, Errioxaren ekimenak ez du inolako balio juridikorik.

1997ko apirilaren 22an Espainiak Europako Batasunaren aurrean duen Ordezkaritza Iraunkorrrak gure araudi fiskalaren aurkako salaketarik ez duela jaso baieztatu dio Bruselan dagoen Ordezkaritza nafarrari. Nahitaezkoa denez, aipatutako Ordezkaritza arduratzen da Espainiako komunitate autonomoek Europako Batasuneko erakundeen aurrean aurkezten dituzten salaketak izapidatzeaz eta dagokienei hauen gorabeheraz berehala informatzeaz.

Era berean, salaketa Europako Batzordearen aurrean gizabanako gisa aurkeztuz gero, Espainiaren Ordezkaritza Iraunkorriari igorri behar zaio.

Euskal Autonomi Elkarteak Bruselan dituen ordezkariek ere Komunitate Autonomo horretako araudi fiskalaren aurka inolako salaketa ofizialik ez dagoela berretsi diote gure Ordezkaritzari.

3. Errioxaren balizko salaketa modu ofizialean aurkeztu arte Nafarroako Gobernuari ez dagokio Bruselan inolako ekimenik egitea.

Hau guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 23an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 7ko 8. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, Francisca Catalán Fabo Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak Tafallako barrutiko Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruz egin duen galdera dela-eta, honako hau adierazten du:

1. Nola bermatu asmo du Nafarroako Gobernuak Zerbitzu horren iraupena?

Tafalla, Artaxona, Zarrakastelu, Erriberri eta Azkoiengo barrutietan Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana garatuz Tafallako Osasun Etxean egongo litzatekeen Emakumearen Laguntzarako Unitate batekin, bi tokoginekologok, bi eri-

zainek edo emaginek, hezitzaile batek eta administrari batek osatutakoa.

2. Noiz hornitu asmo du langile finkoetz?

Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana martxan jartzeak Nafarroa guztian lan baliabideen berregituraketa ekarriko du eta horrenbestez Tafallako Unitateko langileen finkotasuna.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Tafallako osasun zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jardueri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak Tafallako osasun zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 7ko 8. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, Francisca Catalán Fabo Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak Tafallako Osasun Zentrorako aurreikusi diren inbertsio eta antolamendu jardueri buruz egindako galdera dela-eta, honako hau adierazten du:

Zer inbertsio (azpiegituretan, ekipamenduan eta materialean) eta antolamenduzko jarduketa egin asmo ditu Gobernuak Tafallako Osasun Etxean Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua behar bezala arian egon ahal dadin?

Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua eman ahal izateko honako langilegoa behar dela iritzten da: bi tokoginekologo, bi erizain edo emagin, hezitzaile bat eta administrari bat.

Langilegoaren hornikuntza Nafarroa osoko lan baliabideen berregituraketatik aterako da Tafallako Unitateko langileen finkotasuna bermatzeko.

Ekipamendua eta materiala Tafallako Osasun Etxeak dituenetatik aterako da, bertan egongo baita fisikoki Unitatea.

Hau guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, hurrengo erabaki hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze-lehiaketa bukatu ondoren, Mahaiak 1997ko maiatzaren 5ean hartutako erabakiz deitu baitzuen (1997ko maiatzaren 5eko 33 zk.ko NPAO); ateratako eta argitara emandako puntuak ikusita (1997ko uztailaren 1eko 50 zk.ko NPAO), eta aipatu lekualdatze-lehiaketaren 7.3. puntuak ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

1go. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostua

betetzeko lekualdatze-lehiaketaren lanpostu hutsa Mikel Iriarte Cilveti jaunari esleitzea.

2gn. Teknikarien, euskara-itzultzaileen kidego-ko funtzionario izendatzea hurrengo izangaia

– IRIARTE CILVETI, Mikel, 1967ko uztailak 1

3gn. Interesatuak hamar egun natural izango ditu lanpostuaz jabetzeko, izendatzeko ebazpena jakinarazten zaionetik.

Iruñea, 1997ko uztailaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Deialdia, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen arteko hautaprobak egitekoa, administrari gisa prestatu eta gara daitezen

Gainditu dutenen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, hurrengo erabaki hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Administrari gisa prestatu eta gara daitezen, Nafarroako Parlamentuko funtzionario-entako deitutako hautaprobak gainditu dutenen zerrendaren jakitun dagoela adieraztea. Hurrengoak osatuko du aipatu zerrenda:

– José Miguel Carlos Ramírez.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea gainditu dutenen zerrenda.

Iruñea, 1997ko uztailaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía